

BAKERAKO URRATSA

Aspaldion itxaropena sortu da gure Euskalerrian. Alde batetik izukeriaren gelditzea agertu dalako eta bestetik bakerako lan egin-gurean gure errigintzarako alderdiak eta Euskalerriko indar biziak alkartu diralako.

Or agertzen dan bakerako bidean argi ikusten dira oztopo batzuk, batez be euskaldunak ez diran alderdiak euren ortzak erakusten dabezela: ez dabe nai Euskalerria aske izaterik, euren buztarripen sartuta guk jarraitzea nai dabe.

Argitu daigun lenengo Euskalerria esaten dogunean zer ulertzen dogun: Ez gaur aldarrikatzen clan EUZKADI, izen onek bere barruan daroaz Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba, ez Naparroa ta iparraldeko iru lurraldeak. Baiña Euskalerria gure adimenean eta biotzetan beti izan da "zazpiak bat", Euskalerriko zazpi lurraldeak bat eginda. Egia esan, naparrak, euren burua euskaldun zomatzen dabenak, ez dabe entzun gura iparraldeko Be-Nabarra ta Egoaldeko Nabarra lurralde bi diranik. Gauzea olan begiratu ezkeror, "seirak bat" esan bearko genduke. Baiña jarraitu dagigun "zazpiak bat" esaten.

Euskalerria orrelan ulertzen ez ba'da, egingo da bakeantzeko zerbait, baiña barru-barruan egarri aundi bat gertatzen da eta orrelan egiten dan bakea ez da ona, ez da iraunkorra.

Nondik asi bear dogu ba, benetako bakea egiteko?

Nik auxe esondatuko neuke: Lenengo egin bear dana auxe da: Madrilgo ta Paris'eko agintariak edo euren ordezkariak alkartu eta onelako zerbait adierazo mundu guztia-ri:

"Frantze ta España'ren bitartean aberri bat dago, Euskalerria: Iru lurralde iparraldean, Frantze'n, eta lau egoaldean, gaur Españan. Euskalerria benetako aberri bat izan arren, gaur zati bi eginda daukagu, erdian gure arteko muga ipiñita, baiña gaurtik aurrera, eta bakea egiteko bide lez, auxe betetea nai dogu: Iparraldeko ta egoaldeko eus-

kaldunak alkartu egin bear doguz, aberri lez dagokien bizi-tza lortu dagien. Alkartasun ori lortzeko, aide bietako jakintza, ekonomia, langintza, bideak, barri-bideak eta abar alkartu egin bear dira eta guk, Frantze ta España'k, alegiña egingo dogu orrelan alkartzen dan aberriak aurrera egin dagian. Ori lortzen danean, aberri orreri eritxi-batze baten bidean itaun bat egingo dautsagu. "referendun" baten bidez: Aberri lez, nortasuna ta alkartasuna daukazuezan ezkeror, esan egizue: Zelan nai dozue aurrerantzean zuen bizitza, ala oso-osoan zeuen buruen jabe izanda, ala Frantze'gaz edo España'gaz bat eginda? Gero erantzun orren ondorena kontuan artuko dogu eta Euskalerriak askatasun osoa eskatzen ba'dau, Europa Batuan laterri bat izan leiteke, eta bigarren bidea artzen ba'dabe Euskalerriak bere autonomia izango leuke".

Amets ori egi biurtuko ba'litzake, gero Iparraldeko ta Egoaldeko alderdi Euskaldunak izango leukee eskubidea arazoak bideratzeko: Zelako nortasuna lurralde bakoitzak, zelako alkartasuna, zelako agintaritzatza, zelako ekintzak izkuntza, jakintza, langintza ta ekonomi-arloetan eta abar. Euren esku izango leukeez Europa'gazko artu-emonak...

Ori lortzea guztiz gauza gatxa da. Ez da ulertzen zergaitik oker-begiz begiratzen gaituen eta gero eurakandik bananduta eta geure buruaren jabe izaterik nai ez daben.

Bake osoa lortzeko bidea ezin daiteke izan España'ko Laterri-legea. Aurrerago dago aberria, ezin izan daiteke gaurko Araudiaren bidea, onek iru lurralde baiño begiratzen ez dauzalako.

Bake nai ba'dogu, guztiok izan bear dogu ausartak eta emon bear doguzan urratsak emon, eta bakearen ondorena poza izango da, poza gure erriarentzat, poza inguruko erriarentzat, poza munduarentzat, eta gaur alkar ulertu eziñik gabiltzan Euskalerria, iparraldeko laterria eta egoaldekoa, alkar maitasunean bizi izango gara.

Olazar'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!